

ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA (2003)

Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea

Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren (2001eko urriaren 18an onartua) bosgarren akordioaren e) atalean xedatu denez, ekitaldi bakoitza amaitzean akordioan barne hartutako edukien betetze-mailaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txosten bat landu beharko dute Akordia sinatu duten erakundeek.

Honako agiri honetan akordia sinatu duten erakundeek idatzitako jarraipen- eta ebaluazio-txostenetan barne hartutako informazioa adierazi da, Akordioak ezarritako konpromiso eta jarraibideen betetze-mailaren ikuspegi orokorra islatzeko helburuarekin.

Akordioak berak ezarritako irizpideari jarraituz, bi zatitan banatu da orain aurkezten den agiri hau. Lehenengo zatian adierazi dira Akordioaren jardueren protokoloan barne hartutako neurri eta jarraibideen ezarpen eraginkorra bermatzeko Akordia sinatu duten erakundeek 2003an garatu dituzten ekintzak. Ildo horretan egindako aurreikuspenak zein neurritan bete diren jakiteko oso lagungarria da *Erakundeen arteko Akordia zabaltzeko eta martxan jartzeko Neurriei* buruz (2003) Jarraipen Batzordeak 2003ko maiatzaren 14an onartutako agiria, izan ere, bertan aipatzen dira Akordia sinatu duen erakunde bakoitzak 2003ko ekitaldirako aurreikusitako neurriak.

Bestalde, txostenaren bigarren zatian adierazi dira erakunde bakoitzak, dagokien esparruan, Protokoloaren betetze-mailari buruz landutako txostenetan egindako balorazioak (literalki)¹.

Emakunde, 2004ko maiatzaren 14a

¹ Ez dira aipatzen Sendagileen Euskal Kontseiluak egindako balorazioak, ez baitituzte Jarraipen Batzordera igorri.

A) BURUTUTAKO EKINTZAK

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Lehendakariak jendaurrean egindako agerpenetan berariaz aipatu ditu emakumeen aurkako indarkeria eta Erakundeen arteko Akordioa (gaiarekin erlazionatutako agerpenetan noski).

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izateko arriskua duten pertsonengana zuzendutako *Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean?* izeneko liburuxka lantzen lagundu du Lehendakaritzak.

Azaroaren 25ean antolatutako Erakundeen arteko kanpainan parte hartu du, halaber. Zentzu horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

Bestalde, azaroaren 25eko kanpainarekin lotuta, telebistarako iragarki bat eta irratirako beste hainbat landu eta zabaldu ditu Lehendakaritzak, Emakunderekin batera; iragarkien xede izan da emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko eta biktimei laguntzeko gizarte orok eta, bereziki, gizonezkoek parte hartzeko beharra eta garrantzia azpimarratzea.

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

EAEko polizia-etxeetan Erakundeen arteko Akordioaren edukiak ezagutzera eman ditu, agente guztiek ezagutu ditzaten.

Bestalde, Arkauteko Polizia Ikastegian eskaintzen diren prestakuntza-ikastaroen baitan etxeko tratu txar eta sexu-erasoen aurrean egin beharreko esku-hartzeari buruzko edukiak eskaini dira, eta bereziki azpimarratu dira Erakundeen arteko Akordioan polizia-esparrura zuzenduta aipatzen diren konpromisoak eta jarraibideak. 2003an 220 agentek parte hartu dute aipatutako ikastaroetan.

Udalerrietatik iritsitako eskaerari erantzunez, Udaltzaingora zuzendutako etxeko tratu txar eta sexu-erasoen aurrean egin beharreko esku-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak antolatu dira, Akordioaren edukiak azpimarratuz.

Ertzaintzak, bestalde, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei salaketaren kopia bat ematen die, hartara instantzia desberdinetan deklarazioa errepikatzea ekiditeko.

Herrizaingo Sailak *“Ertzaintza Gaur”* barne-informazioko aldizkarian Erakundeen arteko Akordioan barne hartutako edukiei buruzko informazioa ematen du.

Etxeko tratu txarrak jasan eta erasotzailea biktimaren ingurutik urruntzeko kautelazko neurriak lortu dituzten biktimen kasuan, poliziaren babesak ziurtatzeko neurriak zehaztu dira.

Fiskaltzarekin aldiro-aldiro bilerak egin dira etxeko tratu txarren jarraipena egiteko eta babes-mekanismo egokiak erabakitzeko eta ezartzeko.

Etxeko tratu txarren egoera larrienen jarraipena egiteko prozedura informatiko bat sortu du eta norberaren osotasuna arrisku larrian ikusten duten biktimen artean telefono mugikorrek banatu dira.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Erakundeen arteko Akordioaren aurkezpena egin du Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Ordezko Kontseilu Iraunkorren.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntzen Dekretuaren baitan, lehentasuna eman zaie etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean esku hartzeko programei eta ekimenei, eta diru-laguntzak eman dira sentibilizazio-hitzaldiak eta -jardunaldiak garatzeko eta aholkularitza juridikoko eta arreta psikologikoko programak sustatzeko.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntzen Dekretuaren baitan, halaber, xede dugun esparruko prestakuntza-ikastaroei eman zaie lehentasuna eta, gainera, diruz lagundu dira emakumeen aurkako indarkeriari buruzko bi ikastaro.

Zirriborro tekniko bat lantzeko agindu du, babes-baliabideen funtzionamendu eta tipologiaren ezaugarriak arautzeko Dekretu bat landu aurretik.

Tratu txar eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei informazioa emateko telefono-zerbitzu bat (24 orduko zerbitzua) sortzeko izapideak hasi ditu.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalengana zuzendutako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko jardueren Gida lantzen lagundu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzako babes-baliabideak eta etxebizitza-baliabideak berrantolatzeke Proposamena lantzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzeko egin diren bileretan parte hartu du.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren Behategian parte hartu du, EAEko ordezkari gisa.

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua hiru Lurralde Historikoetan ezartzeko protokoloak sustatu eta sinatu ditu; protokolo horietan parte hartu dute, era berean: epaileek, fiskalek, poliziek, BLZek, foru-aldundiek, abokatu profesionalek eta prokuradore profesionalek.

Gizarte-zerbitzuen esparruan babes-agindua ezartzeko protokolo bat lantzen lagundu du.

Sailaren baitan lan-talde bat sortzeko lehen urratsa eman da, hain zuzen: Justizia Administrazioako laguntza-zerbitzuen arteko Koordinazio Protokolo bat landu da.

“www.justizia.net” web-orri berria aurkeztu da: genero-indarkeriarekin erlazionatutako hainbat alderdiri buruzko informazioa eskaintzen da bertan.

Biktimenganako Laguntza Zerbitzuetan langile gehiago jarri dira laguntza hobia eskaintzeko; gainera, aipatutako zerbitzuei buruzko triptiko bat landu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan legelariaren berariazko laguntza eskaintzen duen ofizio-txanda jarri da martxan eta berari buruzko liburuxka bat landu eta zabaldu da.

Abokatutzaren Euskal Kontseiluarekin batera, Erkidegoko hiru Elkargoetako abokatuentzako prestakuntza-ikastaroak antolatu dira.

Auzipetze Kriminalen eta Epaiaketa Azkarren Legearen erreformari buruzko ikastaroak antolatu dira: 13 Bizkaian, 9 Gipuzkoan eta 4, azkenik, Araban. Guztira, 521 profesionalek parte hartu dute.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Ekimenen deialdian aurkeztu diren etxeko tratu txar eta sexu-erasoei buruzko proiektuei diru-laguntzak eman zaizkie.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen (AMEE) bitartez banatu eta ezagutzera eman du Erakundeen arteko Akordioa Erkidegoko auzitegiko medikuen artean.

AMEEk sexu-erasoak eta etxeko indarkeria gertatzen denean informazioa jasotzeko protokoloak onetsi ditu; auzitegiko mediku ororen esku jarri dira, gainerako protokoloekin batera, CD-Rom batean.

Euskal Herriko Unibertsitateak Araban eta Bizkaian dituen Irakaskuntza Unitateetan (Auzitegiko medikuntza irakasgaiaren baitan zehazkiago), era berean, etxeko indarkeriari buruzko mintegiak antolatu dira eta Erakundeen arteko Akordioarekin erlazionatutako hainbat alderdi aztertzen dira.

319/2002 Dekretuan (abenduarien 30ekoa) zehaztutako kontratazio eta autoenplegurako laguntzak aplikatu dira; Dekretu horrek etxeko tratu txarren biktimentzako laguntzak barne hartzen ditu.

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

Etxeko tratu txarren aurrean martxan jarri beharreko Protokolo Sanitarioaren aleak banatu dira osasun-zentro guztietan (sare publikokoak eta pribatukoak), eta Osakidetza osasun-langileen eta bestelako erakunde eta organismoen artean; protokoloarekin batera, historia klinikoa egiteko eredua eta historia klinikoa Epaitegira bidaltzeko gutunaren eredua banatu dira.

Eskualde sanitarioetan Protokoloa ezagutzera emateko jardunaldiak antolatu dira.

2002an hasitako ebaluazioei jarraipena eman zaie eta Protokoloaren hedapena eta beraren betetze-maila eta kalitatearen ebaluazioa egin da 2003an ere bai.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Jarraipen Batzordearen eta Erakundeen arteko Talde Teknikoaren lana sustatu eta koordinatu du.

Emakumeen aurkako indarkeria izeneko txostena eguneratu da, Erakundeen arteko Akordioaren esparruan garatu diren jardueri dagokienez eta Jarraipen Batzordeak eta Erakundeen arteko Talde Teknikoak egindako lanari dagokionez.

Emakunderen web-orriko *Emakumeen aurkako indarkeria* sekzioa eguneratu da: Erakundeen arteko Akordioaren esparruan garatu diren jardueri buruzko informazioa eta Jarraipen Batzordeak egindako lanari buruzkoa barne hartu da.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen gainean profesionalak prestatzeko materialen lantze-prozesuaren koordinazioa egin du, esku hartu beharreko esparru desberdinak kontuan hartuz: sanitarioa, poliziala, judiziala, abokatutza eta gizarte-zerbitzuak.

Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean esku hartzeko Masterraren* sorrera sustatu eta diruz lagundu du.

Aholkularitza teknikoa eskaini die erakunde pribatu eta publikoei Akordioarekin erlazionatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko.

Akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza-jardueratan eta sentsibilizazio-jardueratan parte hartu du.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du eta 15.000 ale finantzatu ditu, bai eta izen bereko 600.000 triptiko ere.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

Bestalde, Lehendakariarekin lankidetzan eta azaroaren 25eko kanpainarekin lotuta, telebistarako iragarki bat eta irratirako beste hainbat landu eta zabaldu ditu; iragarkien xede izan da emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko eta biktimei laguntzeko gizarte orok eta, bereziki, gizonezkoek parte hartzeko beharra eta garrantzia azpimarratzea. Era berean, etxeko tratu txarren aurrean erakutsi beharreko jarrerari buruzko informazioa emateko irratiko iragarkiak emititu ditu.

Emakunderen diru-laguntzen dekretuen baitan lehentasuna eman nahi zaie emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko jarduerari, bai eta biktimei laguntzeko jarduerari ere; ondorioz, aipatutako jardueretara zuzendutako diru-laguntzak areagotu egin dira 2002ko datuekin alderatuta.

Emakumezkoen eta gizonezkoen Berdintasunerako Legearen Aurreproiektuaren zirriborroan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kapitulu bat barne hartu da; besteak beste EAE osoan etxean tratu txarrak jasan dituzten biktimei gutxieneko eskubideak eta baliabideak ziurtatuko zaizkie.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalengana zuzendutako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko jardueren Gida lantzen lagundu du.

*Etxeko tratu txarren biktimetzako babes-baliabideak eta etxebizitza-baliabideak berrantolatze*ko *Proposamena* lantzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzeko egin diren bilerak koordinatu ditu.

Ettxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko esparruan lan egiten duten EAEko elkarteei buruzko azterketa bat egin da, emakumeen aurkako indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Gizarte Sare bat martxan jarri aurretik.

Ettxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeei gizartean eta lan-munduan txertatzen laguntzeko programei buruzko agiriak eta informazioa bilatu da, hartara, eskumeneko erakundeei enplegu-mailako proposamenak egiteko.

Erakundeen arteko Akordioaren betetze-maila berariaz ebaluatu da.

Berdintasun-agenteen sarearen esparruan, Erakundeen arteko Akordioa udal-mailan ezartzeko eta egokitze lan-talde bat sortu du berariaz.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Genero-indarkeria prebenitzeko eta laguntza eskaintzeko babes-zentro integral bat sortzeko proiektu bat garatu du.

Arreta psikologiko eta orientazio juridikoko zerbitzuak eskaini eta garatu dira, bai eta babes-etxeak sortu ere, horien baitan hezkuntza- eta akonpainamendu-programak barne hartuz.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du.

Emakumeen aurkako indarkeria salatze iragarkia bat jarri da 4 egunkaritan, eta azaroaren 25eko kanpainaren ildotik, sentsibilizazio-kanpainak egin dira.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalengana zuzendutako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko jardueren Gida lantzen lagundu du.

Etxeko tratu txarren biktimenzako babes-baliabideak eta etxebizitza-baliabideak berrantolatzeke Proposamena lantzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzeko egin diren bileretan parte hartu du.

Gasteizko Udalarekin batera deialdi bat egin du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko proiektuak aurkezteko.

Arabako emakumeen elkarteei diru-laguntzak eman zaizkio autodefentsako ikastaroak garatzeko.

Gasteizko Udalarekin batera, *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Gida* argitaratu du berriro.

Arabako Abokatuen Elkargoarekin tratu txarren biktimei laguntza juridikoa emateko Zerbitzu integral bat sortzeko hitzarmena sinatu du.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Departamentuarekin eta BLZrekin koordinazio-kanalak ezarri ditu etxeko tratu txarren biktimak babesteko Agindua aplikatzeko.

Arabako Lurralde Historikoko landa-zonetako gizarte-zerbitzuentzako informazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu ditu biktimak babesteko Aginduaren ezarpenaren inguruan.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Erakundeen arteko Akordioaren jardueren protokoloan barne hartutako esku hartzeko jarraibideak ezagutzera emateko 2002an landu zen triptikoa berriro argitaratu eta zabaldu da.

Familien Elkargunea Zerbitzua koordinatu, kudeatu, zabaldu eta handitu da.

Emakumezkoengana zuzendutako diru-laguntzen deialdia arautzen duen Foru Dekretuan lehentasuna eman zaie babes-jarduerak eta aholkularitza juridikoa zuzenean eskaintzeko balorazio-irizpideei.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako eta seme/alabentzako babes-baliabide berri bat eskaini da: akonpainamendu-zerbitzua eskainiko da eguneko 24 orduetan.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei arreta psikologikoa eskaintzeko zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin da.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalengana zuzendutako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko jardueren Gida lantzen lagundu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzako babes-baliabideak eta etxebizitza-baliabideak berrantolatzeko Proposamena lantzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzeko egin diren bileretan parte hartu du.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Lurralde-mailako larrialdiei babes-zerbitzua eskaintzeko proiektuaren zirriborroa landu da egoera larriak bizi dituzten pertsonentzat, hartara, etxeko indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten biktimei informazioa eta laguntza emateko.

Elkarguneak antolatu dira eta langile pertsonalizatuen laguntza eskaini da.

Laguntza juridikoko zerbitzu bat ireki da (sistema judizialak eskaintzen duen zerbitzuaren osagarria), aitzak edo amak adin txikikoa herrialdetik ateratzeko arriskua dagoen kasuetan aurretiko neurriak hartzeko.

“Gizalde” Planaren baitan, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak egiten dituzten elkarteetara edo biktimei akonpainamendua, laguntza eta babesa eskaintzen dieten elkarteetara zuzendutako diru-laguntzak areagotu dira.

Tratu txarren jarraipenerako Lurralde Batzordean parte hartu da: helburua da informazioa jasotzeko fitxak lantzeko irizpideak bateratzea eta, ondorioz, datu homogeneousak lortu ahal izatea.

Esparruko hainbat erakunderekin koordinazio-bilerak egin dira, gaur egungo esku hartzeko bitartekoak Erakundeen arteko Akordioaren jardueren protokoloan aurreikusitakoetara egokitzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-jarduerak antolatu dira, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntza eta tratamendua ematen dieten profesionalekin.

“Gizalde” Planaren baitan etxeko indarkeria prebenitzeko garatzen diren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen ebaluazioa egin da; era berean, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei eskaintzen zaizkien arreta-baliabideen ebaluazioa egin da: orientazio juridikoko zerbitzuak, arreta psikologikoa, babes-etxeak eta larrialdietako zerbitzua.

SOS/DEIAKek biktimek duten ostatu-behar larriei erantzuteko eta gizarte-zerbitzuen ordutegitik kanpo laguntzeko dituen baliabideen jarraipena egin da; modu berean, emakumeek eta adin txikikoek gizarte-babeserako sistemak eskuratzeko dituzten aukerak aztertu dira: oinarrizko errenta, lanerako programak, gizarteratzeko programak, eta abar.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu da.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu da; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalengana zuzendutako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko jardueren Gida lantzen lagundu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzako babes-baliabideak eta etxebizitza-baliabideak berrantolatzeke Proposamena lantzen parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzeko egin diren bileretan parte hartu du.

EUDEL / EUSKAL UDALERRIEN ELKARTEA

Web-orriaren bitartez Erakundeen arteko Akordioaren berri ematen jarraitu du.

Akordioaren ezarpenean zuzenean nahastuta dauden udal-langileei prestakuntza-espazioak eskaintzen jarraitu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzako babes-baliabideak eta etxebizitza-baliabideak berrantolatzeke Proposamena lantzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzeko egin diren bileretan parte hartu du.

EUSKAL HERRIKO AUZITEGI NAGUSIKO FISKALTZA

Hamabostean behin KPeko 153. artikuluko zigor-mota dela eta jarraitu diren zigor-prozeduretan hartutako kautelazko neurrien zerrenda bidali zaio Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari; era berean, epai penal irmoetan hartutako kautelazko neurrien zerrenda bidali zaio Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, guztiak kontrolatzeko eta betearazteko.

Etxeko indarkeriaren esparruko fiskalekin eta Ertzaintzaren Lurralde Burutzen artean bilerak egin dira aldiro-aldiro, etxeko tratu txarren baitan salatutako kasu larrienen jarraipena egiteko eta, ahal den neurrian, kautelazko neurri zorrotzagoak hartzeko.

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Abokatutzaren Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak abokatu profesionalentzako Bilbon antolatutako ikastaroan parte hartu du txosten batekin.

ABOKATUTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailarekin batera abokatu profesionalentzako hiru prestakuntza-ikastaro antolatu ditu etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen inguruan. Ezinbestekoa da horiek garatzea berariazko ofizio-txandan lan egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailarekin egiten den lankidetzaren sendotze egin da.

Elkargo bakoitzak eskaintzen dituen berariazko ofizio-txandak eta 24 orduko Zerbitzua ezagutzera eman ditu, liburuxkak banatuz, sentsibilizazio-jardueretan parte hartuz, eta abar.

Abokatutzako profesionalei eta Justizia Administrazioarekin erlazionatutako bestelako profesionalei etxeko indarkeriaren eta erasoen inguruko prestakuntza eskaintzeko materialak landu ditu, hainbat erakunderekin lankidetzan.

Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, komunikabideetako programak).

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

SENDAGILEEN EUSKAL KONTSEILUA

Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean? izeneko liburuxka lantzen eta banatzen lagundu du, hain zuzen mota horretako delituen biktima izan daitezkeen pertsonengan zuzendutako liburuxka.

Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du.

Azaroaren 25eko Erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du; ildo horretan, EAEko egunkari guztietan publizitatea egin du (orri osoa) eta, gainera, 7.000 horma-irudi landu eta zabaldu ditu, etxeko tratu txarren aurrean azaldu beharreko jokabidea erakutsiz.

B) JARDUEREN PROTOKOLOAREN BETETZE MAILAREN BALORAZIOA

LEHENDAKARITZA

“Aurreikusi diren ekintzak eta garatu direnak kontuan hartuta, zera esan daiteke: ahal izan den guztietan bete dira helburuak. Horrela, ez da prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu, ez baitira antolatuta. Eta Eusko Legebiltzarrean ez da Deklarazio berri bat landu, izan ere, gure ustez Emakunderi dagokio Deklarazio hori egitea. Hala ere, 2004. urterako Emakunderekin batera Deklarazio bat diseinatzeko prest gaude.”

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

"Erakundeen arteko Akordioan barne hartutako jarduketa polizialaren jarraibideak lantzeko Segurtasun Sailburuordeak etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen inguruan emandako jarraibideak hartu dira oinarrian. Horrexegatik, eta kontuan hartuta jarraibide horiek direla polizia-agenteei jarraitu beharreko jarduketa-prozedura zehazten dutenak, Akordioaren betetze-mailari buruzko balorazioa positiboa da.

Bestalde, bereziki azpimarragarria da etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean poliziaren erantzuna gero eta hobe eta kalitatezkoagoa izateko egiten ari den ahalegina:

- Agenteen prestakuntza-ikastaroetan etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean egin beharreko esku-hartzeari buruzko edukiak eskaintzen dira.*
- Biktimak jasotzen duen arreta une horretan bizi duen egoera berezia eta gogorrekiko egokia da. Besteak beste, biktimari egin beharrekoa edo egin ahal duena jakinaraziko zaio eta eskura dituen babes-baliabideak eta -neurriak ezagutzera eman; eta beharrezkoa den kasuetan, gizarte-zerbitzuetara bidaltzen da biktima eta salaketaren kopia bat ematen zaio, hartara, deklarazioa errepikatu beharra saihesteko.*
- Bestalde, etxeko tratu txarren biktimei babes gehiago eta modu eraginkorragoan eskaintzeko lan handia egiten ari da Herrizaingo Saila; zentzu horretan, Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartutako Segurtasun Planean parte hartzen du Herrizaingo Sailak eta 27/2003 Legeko, etxeko tratu txarren biktimak babesteko Agindua arautzen*

duena, edukiak aplikatzen ditu. Biktimei eskaini beharreko babesari dagokionez, arrisku handiko egoeran bizi diren emakumeengana zuzendutako neurriak erabaki dira berariaz, hala nola telefono mugikorrak ematea.”

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

“Gaur egun ez dugu behar bezalako informaziorik aurreikusitako zereginen inguruko balorazio osoa egiteko, nahiz eta hainbat galdeketa bete eta aurkeztu diren informazioa lortzeko. Hala ere, zenbait kasutan ezinezkoa izan da galdeketa betetzea, izan ere, orain arte horretaz arduratzen zen pertsonak gaixotasun-baja hartu du”.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

“Egun ez daukagu aurreikusitako zereginen balorazio osorik egiteko beharko genukeen informaziorik baina, balorazioa egiteko, daukagun informazioarekin betetako galdera sortak erantsi ditugu. Alabaina, zeregin batzuei buruzko galdera sorta betetzerik ez dugu izan, gai horren ardura duen eta lan hori egin ohi duen pertsona gaixorik dagoenez une hauetan lanean ari ez delako.

2003 urtea bereziki oparoa izan da Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak Etxeko Tratu Txarren eta Eraso Sexualen Biktima diren Emakumeen Arreta hobetzeko Erakundeen Arteko Akordioaren esparruan egindako jardueren aldetik.

Operadore juridiko guztiekin koordinatzeko zeregina jorratu da, genero indarkeriaren arazoari eraginkortasun handiagoz heltzeko ahaleginak bateratzen dituzten protokoloak bultzatu eta sinatuz. Esparru berean Epaitegi eta Auzitegien eta gai horretan inplikaturik dauden gizarte operadoreen artean koordinatuta aritzeko ildoak formalizatzeko bilerak ere sustatu dira.

Epaile, Idazkari, Fiskal eta justiziako langileak, baita abokatu eta prokuradoreak ere, gero eta sentsibilizatuago daudela ere hauteman da, denek oso aktiboki parte hartu baitute arazo honi aurre egiteari buruzko ikastaldietan.

Aurten hartutako konpromisoak bete ez eze, aurreikusita ez zeuden jarduerak ere egin dira, batez ere duela gutxiko lege aldarazpenen ondorioz (Babesaren Agindua araupetzen

duen uztailaren 31ko 27/2003 Legea), esaterako, Babesaren Aginduko Koordinaketa Zentroak abiaraztea.

Beraz, oro har, Jarduera Protokoloa zenbateraino bete den baloratzeko orduan ondo aritu garela esan genezake baina horrek, helburuetan nasaitzera barik, familia barruko eta genero indarkeriaren gaitza erabat desagerrarazteko lanean segitzera eraman behar gaitu.”

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA ETA OSAKIDETZA/EOZ

“Honakoak Osakidetzako osasun-zentro guztietan —lehen arretako zentroak eta ospitaleak— banatu den galdeketa (2003. urteko betetze-mailari buruzkoa). Kontuan hartuta prozesua hasi besterik ez dela egin, badirudi betetze-maila onargarria lortu dela”.

Zentroan tratu txarren biktimak izan badira, etxeko tratu txarren osasun-protokoloan adierazitako jarraibideak bete al dira?:

	Kopurua	%
<i>Bai, kasu guztietan</i>	32	14
<i>Bai, zenbait kasutan</i>	18	8
<i>Ez</i>	1	1
<i>Ez da biktimarik izan</i>	116	53
<i>Ez daki</i>	42	19
<i>Erantzunik ez</i>	12	5
GUZTIRA	221	100

EMAKUNDE

“Emakunde xede dugun esparruko organismo osagarri bat da; ez dagokio berari etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei zuzeneko laguntza eskaintzea. Hori dela eta, Emakunderi ezinezkoa zaio Protokoloaren betetze-maila baloratzea, ez baitu biktimei laguntzeko ardura duten profesionalek bakoitzak bere esparruan —sanitarioa, poliziala, judiziala, Abokatuen Elkargoak eta gizarte-zerbitzuak— egiten duten lanari buruzko informazio zehatza.

Hala ere, aurten ere Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sailari agindu zaio 2003ko Erakundeen arteko Akordioa ezartzeko hartu diren neurriak ezagutzeko berariazko azterketa bat egiteko (nork garatu ditu neurriak, zein helbururekin garatu diren, kostua, eta abar), EEEPP IIIren ebaluazio-esparruaren baitan. Ebaluazio hori amaitu bezain laster jarraipen-txostenaren baitan barne hartuko da.”

ARABAKO FORU ALDUNDIA

“Arreta Espezializatuko Zerbitzuei dagokienez, hartutako konpromisoak bete dira eta arreta jaso duten erabiltzaileak gero eta gehiago dira. Behar berriak sortu dira eta horien aurrean erantzun egokia emateko Zerbitzuak egokitzeko (zabalduta) beharra ari gara aztertzen. Ildo horretan, Gasteizko Udalarekin lankidetzak hitzarmen bat sinatu dugu aipatutako zerbitzuak eskaintzeko.

Bestelako erakunderekin lankidetzan, etengabe ari da Arabako Foru Aldundia proposamenak lantzen, baliabide berriak proposatzen, eta abar. Zehazkiago, bereziki garrantzitsua da Gasteizko Udaleko Lehendakariak Berdintasunerako Zerbitzuarekin sinatutako Lankidetzak Hitzarmena; emaitza bikainak ari gara lortzen horri esker.

Amaitzeko, genero-indarkeriaren aurkako borrokan aurrerapauso garrantzitsuak eman direla azpimarratu behar litzateke, nahiz eta oraindik bide luzea egin behar dugun; hori da gure helburua eta horretan ari gara.”

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

“Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen lan egiten dugun Emakumea eta Familia Zerbitzuko profesionalak Akordioa bete dela baieztatu ahal dugu, jarraian aipatzen diren esparruei dagokienez:

Gizarte Zerbitzuak – Oinarrizko GZetara iristen den emakume orori laguntzen zaio. Eskura dituen baliabideak jakinarazten zaizkio eta laguntza emozionala ematen zaio. Zerbitzu espezializatu honetara iristen diren kasu guztietan betetzen dira Akordioan aurreikusitako txosten guztiak eta berehala igortzen dira.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik Jardueren Protokoloari buruzko zalantzak iritsi dira eta testu osoa eta/edo II eta III Eranskinak bidaltzeko eskatu da, zerbitzuetan ez baitzegoen beharrezkoa zen dokumentazioa.

Hala ere, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen esparruko langile gutxik parte hartu zuten HAEEK 2003ko urtarrilaren 21-28 bitartean eta otsailaren 3an antolatutako prestakuntza-ikastaroan ("Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak"). Erakundeen arteko Akordioa eta tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Protokoloa landu ziren ikastaroko atal batean eta beraren ezarpenari buruzko galdeketa bat banatu zen parte-hartzaileen artean. Gehienek adierazi zuten, informazio gehiago eman behar zen eta beharrezkoa ikusi zuten, halaber, toki-mailan zein eskualde-mailan erakundeen arteko koordinazio-sareak sortzea (zerikusia duten esparru guztiak nahastuz).

Babes-baliabideei dagokienez, zenbait udalen kasuan irregulartasunak gertatu dira. Horrela, emakumeei salaketa aurkezteko baldintza jarri zaie batzuetan, edo emakume etorkinak baztertu egin dira udalerrian erroldatuta ez egoteagatik. Eta horrelako jokaerak desagertzea lortu behar da eta Akordioan erabakitako betearaztea.

Emakumea eta Familiaren Zerbitzu Espezializatua – Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei (beren kontura seme/alabak eduki ala ez) larrialdietako zerbitzua eskaintzen zaie. Oinarrizko GZetatik iristen diren babes-eskari guztien balorazioa egiten da eta, emakumeari babesa eskaini ondoren, emakumearen egoera, arazo eta baliabideetatik abiatuta plan indibidual bat lantzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumea eta Familiaren Zerbitzutik adierazi denez, Bizkaiko Lurralderako Koordinazio Batzorde bat martxan jarri beharko litzateke. Batzorde horren lana izango litzateke Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eta Zerbitzu Espezializatuetatik etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktimen alde garatutako jarduerak aztertzea eta horien jarraipena egitea eta koordinatzea. Oraingoz ezinezkoa izan da hori guztia egitea, langile gehiago behar baitira.

Bestalde, egokitza jo da gizarte-zerbitzuen esparruko datuak jasotzeko sistema bateratu bat sortzea; horri esker arazoa hobeto ezagutu eta esku hartzeko politikak orientatu ahal izango dira.

Esparru judiziala – Auzitegiko medikuak egindako jarraipena zehazten da esparru honetan eta Biktimenganako Laguntza Zerbitzuarekin harremanetan jarri behar dira eta prozedurak arintzea lortu.

Abokatuen Elkargoak- Ofizio Txanda espezializatuak berariazko esku-hartzea egiten du biktimei laguntzeko eta, ondorioz, biktimei ematen zain laguntza hobetzea lortu da.

Batzuetan telefono bidezko laguntza eskaintzen da, hau da, letraduarekin telefonoz hitz egiteko aukera eskaintzen da, elkartu gabe. Egoera hori aldatzeko langile-kopurua ugaritu beharko litzatekeela uste dugu.”

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

“Egoeraren balorazio egiteko udal-mailako gizarte-zerbitzuek emandako informazioa erabili da; etengabekoa izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte-zerbitzuekin izandako harremana eta horrela lortu du Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatutako etxeko tratatu txar eta sexu-erasoen gertaeren berri izatea.

Nire ustez, akordioari esker biktimei laguntzeko lan egiten dugun profesionalen arteko koordinazioa hobetzen ari da; hala ere, askotan urratzen da akordioa. Zentzu horretan, jarraian hainbat adibide ikus daitezke:

- Salaketa jarri ondoren Ertzaintzak gizarte-zerbitzuetan jakinarazi ez dituen kasuak.
- Udal-mailako gizarte-zerbitzuei (biktima erroldatuta badago) edo Aldundiari (GLHn erroldatuta ez badago) jakinarazi gabe biktimei ostatura emateko hotelak erabili izan dira.
- Biktimei erraztu egin behar zaie BLZrekin harremanetan jartzeko modua. Justizia Epaitegian dago kokatuta BLZ eta ezinezkoa zaio GLH osoko eskaria erantzutea.
- Oinarrizko Errenta eskuratzeko zailtasunak arintzea, bai baldintzak betetzen ez direnean bai ematea atzeratzen denean.
- Larrialdietako babes-etxe batean dauden emakumeei Oinarrizko Errenta kendu zaie batzuetan.

Akordioa sinatu duten erakunde guztiei dagokie sistema bakoitzeko barne-protokoloak betetzen saiatzea. Beraiei dagokie akordioak sortutako beharrei erantzuteko giza bitartekoak eta bitarteko materialak jartzea.”

EUSKAL HERRIKO AUZITEGI NAGUSIKO FISKALTZA

“Inolako zalantzarik gabe, 2003an “Jardueren Protokoloa” indartzea eta garatzea lortu da erakunde-mailan. Bereziki azpimarragarria da, zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak (Ertzaintzaren bitartez) egindako lan handia; zenbait kasutan antzemandako urraketei buruzko txostenak landu ditu eta ikerketa sakonak egin dira; horiei esker bete ahal izan du Fiskaltzak berari dagokion prozedura eta erruztatu diren pertsonak zigortu ahal izan dira. Horrek guztiak indartu egin du gertaera izugarri horien biktimek justizian duten konfiantza eta justiziak ematen dien segurtasuna.”

EUDEL / EUSKAL UDALERRIEN ELKARTEA

“Jarduteko bitartekoak martxan jarri dira eta balorazio positiboa lortu dute. Bereziki azpimarragarria da EUDELi zaila egiten zaiola udal-mailako esku-hartzeetan akordioak izandako betetze-mailari buruzko ebaluazioa egitea.

Horregatik, txosten honetan EUDELek erakunde gisa egiten duen lana adierazi da, euskal udal bakoitzak puntualki egiten dituen esku hartzetan sartu gabe.”

ABOKATUTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

“Pixkanaka hasi dira abokatuak jarduera-protokoloetako edukiak ezagutzen. Azken urtean ahalegin izugarri handia egin zentzu horretan. Etxeko indarkeriaren biktima gehiago iritsi dira ofizia-txandara, hainbat eragileren ondorioz: salaketak ugaritu dira, babes-agindua arautu da eta aldaketa handiak egin dira. Aurrerantzean, biktimei eskaintzen zaien laguntzarekin erlazionatutako hitzaldi, epaiketa eta diligentsia guztietan eskainiko da letraduaren laguntza.

Ofizio-txandan sartzeko eta guardiak egiteko nahitaez egin beharko dira prestakuntza espezializatuko ikastaroak.

Erakundeen arteko Akordioaren jarraipen eta ebaluazioari buruzko txostena (2003). Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

Polizien eta epaitegien arteko koordinazioa hobetu behar da. Une honetan, lana ugaritu dela kontuan hartuta, lehentasuna eman beharko litzaioke 24 orduko guardiako letradu-kopurua ugaritzeari eta horixe jakinarazi zaio Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari”.